




AZKEN-APARIA



UDATAĀREN pasko-eguna! Egun zora-
gaĀia israeldar eĀiarentzat. Jai au
eltzean, pozaĀren pozaz biziro eĀil-
kioen bular-baĀuan biotza.

TxiĀuĀi-piĀo galanta zan Jerusa-
len; amaika erbesteko bestera bai-da
eldu. Eguzkia itxasperantza; mendi-
-bera gau-itzalak. Igaratz-bildotsa il

dabe, ta bakotxa bere sukaldera, alkaĀren leian apaltzen.

Zatoz zu be, irakurle, neuri yaĀai, judataĀren apaltoki
batera; begiak zoĀrotz ta ernai belaĀiak ikus-entzun da-
gigun zer dagien bertan.

Kanpo - aldetik maĀadi bat doa etxe gaĀera. Azke-
nengo maĀalik atea jo ta orpoz-orpo apaltoki eder-zaba-
la, apain-atondua.

Mai luzea; inguruan oe antzeko jarlekuetan ezaĀita
maitiaĀak, Jesus ta ikaslak. Mai-azalean azpiĀak bana-
ka; erdi-erdikoan urte beteko bildotsa, eĀeta; ezertariko
orbanik bakoa. OĀiĀak, bost muetako (klaseko) gari-ga-
raunez egin eta uĀez bakaĀik oretuak: luze ta medaĀak.
Bedar mingots piĀoa be agiri da: uraza, api, arbi txiki
ta abar.

Josu mai erdian dago; aren eskuman Jon, ikasle
maitea, ta ezkeĀetik Juda Iskariot. Autuan diardue, ak
au ta onek ori Jesus'i itaunka. OindiĀo eztira jaten asi.

Datzan lekutik jagi da Josu; ikaslak begira zer ete
dagian. GaĀeko jantzia eĀantzi ta esku-zapi bat arturik,
geĀira lotu dau. Untzira ura bota ta ikaslien oin aus-

tuak garbitzen jañi da, euren aurrean auspaz. Zur ta lur daukazuz oneik, inor be txitik alaraten asartuten ez dela.

Simon Kepa'gana eldu da, ostera ta an bai dozu zarata ta istilurik naiko. Josu, bere aurrean belaunbiko, onak garbitu gura-ta ikusirik, biotz-ikututa, bizi baizen asartu diño: «Jauna, zuk niri onak garbitu?» Josu'k, bariz, beragana begiok jaso ta samurkiro dirautso: «Dagidana, orain ez dakizu; baña gerokoan yakingo dozu». Alan be, Kepa'k burukoitsu: «Egundo be ez daustazu onik garbituko». Lotsa andia eutson bere Maixuari ta ez eban gura bere onetan auzpaz ikusterik, apaltasunezko egitada bat egiten ziardua ba-ekian-eta. Baña Jesus'ek darantzutso: «Garbitzen ezpa-zaitut, ez dozu Nigaz erkidegorik izango». Itzok biotz-biotzean dagioe zirkin; ainbat maitasun-erakutsi eder emon eutsan Jesus galduko dabelakotan, bildur ta lari, esanera dator. Apal-apal diñautso: «Jauna, onak ez bakañik, eskuak eta burua be garbitu egi-dazuz». Josu'k gozoro: «Garbi dagoanak, onak besterik ez dau garbitu bear, oso garbi dago-ta. Zuek garbi zagoze; ez, ostera, guztiok».

Ba-dozu izan be mai-ertzean bat garbi eztagoana: Judas gaiztoa.

Onela, banan-banan danen onak ikuzi edo garbitu dauz; saltzale anker-biotz bakoarenak be bai. Eta arazo ori amaiturik, soin ganeko txabuxa jantzi ta ikusi bariro maian jarten.

Arituta alkañi begiratzen dautse ikaslak. Ixilune itzali. Inoren ezpanik ezta uratzen.

Josu'k biotz-samur: «Bai al dakizue zuekaz zer egin dodan? Zuek Irakasle ta Jauna diñostazue; ta ederto diñozue, orelaxe naz-eta. Beraz, Jaun eta Irakasle nayatzuen Onok onok garbitu ba-dautzuedaz, zeuok be alkañi garbitu bear dautsozue. Eredua erakutsi dautzuet, ba, Nik egin dautzuedanez, zenek be dagizuen».

Ixilune baria. Inok be eztagi
Kisto'ri, bariz, garai ontan
belartea. Laritu egin da, noski
itzali yako
an iku-

sita. Naiez andiz ondaturik dauko biotza. Ikaslak aren kiñu-bila, margo-laru.

Abots ausi ta oñazetuz diño: «Bene-benetan diñautzuet: zuetariko batek, maikide yatan batek, salduko nau».

Lañi biziak artzen dauz ikaslien biotzak. Aren biozketan alkar-yote estua! Batak besteari so dagio, ixilik baña.

Bañero be Josu'ren itzok uratu dabe ixil andia: «Amabietako batek, azpil (platez) berberetik Neugaz jaten dagoan batek, salduko nau».

Au entzunik danak, lañi be lañi: «Ni ete naz?»

Jesus'en ezker-aldera dagoan Judas'ek be: «Ni ete naz?» Eta Josu'k, samurtasun utsak, itz mingotzok ebagi ditu: «Zeuk diñozu».

Itzok, ostera, Judas'en belañira baño eztira eldu; enparauak ez dabe entzun. Tximista batek jo ba-leu lez jañi da gizajoa. Alan be, arigirian ez dau zauskada gogaikañien antzik erakusten. Arpegiz ederto guzurtu daroa bañuko saldukeri nabarbena.

Beste ikaslak zerbait ixilduak dituzu. Kepa baña jakin-gura da, ta maiaren beste aldetik auñez-auñe daukon Jon'i diñotso, Jesus'i itanduteko kiñu egiñik: «Adi egik, norgaitik diño?» Eta Jon'ek Jesusi: «Jauna nor da?» Josu'k aopean: «Neuk ogia bustita emongo dautso-dana, axe». Eta ogia aspīlean busti ta Judas'i damotsa.

Juda'k sugea dirudi. Jarlekua gaña deritxo ta aztin jagi da. Irakasle onaganako goñotoa bular-bañuan lez yako. Txinpartak ñir-ñir aren begi isioetan. Oñak kolo-ka. Txeñenak artu dau. Zutik egon ezinda, sukañetan kanpora doia. Josu'k, atzetik mintzoera samiñenez: «Egitekoa laster egizu». Kale ilunean durundu itzala.

Aldakuntzarik uste bakoena! Saltzale biuñra auñetik joan yako ta nasaiago arnasa artzen dau Josu-biotzak. Jainko-argizko dirdiraz begi biak. Ikaslien biotz-muñetan be poz-izañak argi.

Iñozkorik poz-alaien itz Josu'k; gauza andiren bat egin bear dabena, ikaslak eurak be susmau dabe.

Izan be, Itun zaña amaitu ta baña asten da garai

ontan. Beti dau Apaiz andiak laster opalduko dau gurutzan gizon pekatariakaitik, bere soña; baña auřetik egin gnra dau gurutzekoaren irudi dan opalmen ari-gařia; auřerantzean be, eleiz-gizonen bitartez, aldiak agortu arte, beti ta edonon bařiztaua izango dana. Gizonari eutson maitasun-ezaugařia. Lege bařiko eskintza samuřa.

Ogi bat dauko Josu'k eskuan; begiak zerura jazo, Goiko Aitari eskeřak egin, onetsi ta zatituz ikaslien artean banatu dau, esanaz: «Artu ta jan; auxe da nire soña, zuen alde emona».

Ogi-zatiak, itzen indařez, gorputz biurtu dira, ta ikaslak begirunetsu artu ta yan egin dabe.

Bařiro be Josu'k alboan eukon ontzia esku mungařietan artu, ardaoz bete, eskeřak egin, onetsi ta ikaslai damotse, esanik: «Edan egizue onetatik danok. Au da, ba, neure odola, Itun-odola, oben azketserako askoren alde ixuriko dana». Iksalak artu ta edan dabe, itzalik andienagaz.

Izuaren izuz berba barik dagoz guztiak. Ainbat miragaři dakuse! Jaunagan begiak tinko, bere itzak entzutean, sorgor. Zerutar gařez txinpartaka dauko arpegia. Lege bařiko ikurtonik andiena irazan dau-ta, zelan ez euki argi-pitsetan arpegia ta soin osoa be? Or Jainko-maitasunaren agerpen garaia.

Ořaitiño, gain datorkio Josu'ri mundu onetatik urtetako ordua. Laster eriotzarik gařatzena emongo dautse arerio gaiztoak. Eta ain bařuko dabezan ikaslak? Al Pizka baten beintzat, nai ta nai ez, aldendu bear eura-kandik. Ořegaitik agur dagie, agindu ta onurik samur-eztienak emonaz.

Bigun-bigun itz egiten dautse biotzera: «Semetxuok, oindiño apur bateko zuekin nago. Baña laster noia zuekandik eta ni noian tokira zuek ezin etoři. Agindu baři bat dagitzuet: alkar maite egizue». (Jon, XIII, 1-34).

Eresia esan, apaltokitik urten ta baratzerako bidea artu dabe. Antzerkirik odoltsuena oraintxe asiko da.